

2010-09-04

Gazte gara gazte

Kritika

Artea

Prospekt '10.

Non: Windsor galeria (Bilbo). **Noiz arte:** irailaren 17ra arte.

Haizea Barcenilla

Euskal Herrian ez da, tamalez, artista gazteenek lanak erakuts ditzaten espazio askorik. Unibertsitateak badu bere aretoa, baina 1968ko maiatzeko gertakizunen ondoren Leioako campusa mendi punta batean eraikitzea erabaki zutenez, handik pasatzen den publikoa nahiko urria da. Beraz, Windsor galeriak urtero antolatzen duen Arte Ederretako ikasleen erakusketak berritasun apur bat dakarkio panorama artistikoari. Hamar dira oraingoan agertutako artistak, joera desberdinen jarraitzaile.

Hala ere, badira guztien lanetan errepikatzen diren zenbait elementu, nolabaiteko koherentzia bat ehuntzen dutenak. Horietako bat paisaiaren begirada da, habitatari eta inguruneari behatzen dion eta hura aztertzen duen begirada bat. Horri gehitzen zaio (edo agian ez da gehitzea, barnean sartzea baizik) emakumearen gorputzari eta espazioari buruzko gogoeta, hainbat artistaren lanean agertzen dena. Etxea, gotorlekua, egoitza ere presente dago. Benetako gai edo proposamen komisarialik ez dagoen arren (izena bera, *Prospekt '10*, iazko *Zeitgeist*-aren jarraipen zabal eta zehaztugabea da), suma daiteke badirela fakultatean gailentzen diren materia eta orientazioak.

Erakusketa kritikatzeko elementu bakarra -galeria batean izateagatik aurreikusteko modukoa zena, hala ere- aurkeztutako lanek duten izaera materiala da. Ez dago ekintzetan oinarritzen den lanik, Alejandra Buenok inaugurazio egunean egindako *performance*-a izan ezik. Ez dago, orobat, bideoan eta argazkian aurkezten den lan askorik, eskulturak eta pinturak dute garrantzi handiena erakusketan. Hori Leioako fakultatearen fenomeno ote da edo komisarioaren aukeraketaren emaitza?

Lanen artean, zirrara sortzen duen lehenengoa Santiago F. Mosteyrinek egindako marrazki handia da. Pilot finez marraztuta, mendi baten gainetik zabaltzen den baso bat irudikatuz, Bilbon azken urteetan ikusitako zolitasun teknikorik handiena erakusten duela esango nuke. Lana ez da berria, *Next* programaren barnean aurten ikusgai egon baita Montehermoson, baina behin eta berriz ikus daitekeen obra da, urrutitik sortzen duen irudi bolumetrikoa marra sinpleen bidez egina dagoela sinetsi ahal gabe. *Edertasuna* modaz pasatutako hitza bada ere, zaila egiten da marrazki horri aplikatzeko adjektibo aproposagorik aurkitzea.

Bada aurtengo erakusketako lan anitzetan, izan ere, samurtasun berezia. Amaya Cortaireren zeramika gaineko hogeita zazpi argazkiek paisaia desertuak erakusten dizkigute, polaroidak balira legez. Askok garraio batetik ateratakoak dirudite, eta ezaugarri berezirik gabekoak dira: argi-zutoinak belardietan, elurrez betetako zelaiak; hondartza bat; lainoz beteriko zeruak landen gainetik. Haien momentu bateko memoriaren izaerak zeramikak igortzen dien sendotasunarekin kontraste aipagarria sortzen du. Badirudi, irudiak bata bestearen ondoan ikusita, espazioz espazio salto egiten duen zerumuga jarrai bat marrazten dutela.

Zentzu desberdinean baina lan erakargarria osatuz aurkezten dira Marta Lopez Orosaren bi piezak aretoaren hondoan. Lehena, zoruan kokatzen den eraikuntza txiki bat da, egurrez eta plastikoz

egina, argi izpi batekin. Zorutik gutxi altxatzen da, eta arkitektura modernoaren maketa eta diseinuzko altzariaren arteko abstrakzioaren antza du. Gordelekua dirudi, eta denbora berean hauskorra eta segurua izatearen inpresioa helarazten du. Eskultura modernoaren eragina bada ere, eskalarekin apurto eta objektu eramangarria eta maneiagarria bihurtzen du artistak lurreko pieza txikia. Paretan zintzilikatutako panelak erreferentzia eta berritasuna nahasten ditu orobat. Konstruktibismoko diseinuko motiboak gogorarazten dituzten kolore eta formen bidez, pinturaren, ehunaren eta hiru dimentsioko objektuaren arteko elementu bat sortzen da. Dekoratihoa izan gabe, apaindu egiten du; erabilgarria izan gabe, zentzu bat du. Fakultatearen ohitura eskultorikoari bira bat ematen diote Marta Lopezen lanek.

Beste lanen artean, Esther Alvarezek eta Alejandra Buenok emakumearen gorputza eta espazioaren inguruko gogoetari eskaintzen diote arreta; lehenak, bideoaren bidez; besteak, argazkia erabiliz. Aipagarria da, lehen aurreratu bezala, bi formatu horiek erakusketan duten presentzia eskasa, eta euskarri autonomo modura ulertuta beharrean, dokumentaziorako tresna gisa hartuta ageri dira, batez ere *performance*-aren kasuan. Pinturak ere nagusitasuna hartzen du Jose Castiella, Maria Cortina eta Ibai Diaz Lezamaren lanetan. Cortinak ere paisaiari dedikatzen dio begirada, Amaya Cortaireren lanekin bat etorritz.

Oihana Goenagaren lana, Ertibilen ikusgai dagoena gogoratuz, zertxobait ahulago agertzen da oraingoan, hala nola Amaia Gracia Azketaren piezak, marrazki interesgarri eta estruktura errepikakor batzuen bidez osatua. Hala ere, guztira erakusketa erakargarri eta plurala osatzen dute, edozein gustutarako elementuak eskainiz.